
FUNTSEZKO ELKARTEAK

Lehenik, aipatu behar dugu Islada laguntza zerbitzua lau bazkideekin osaturik dagoela; Asmaa Roufani, Eider Arrizabalaga, Eider Mendizabal eta Nerea Martin.

Zerbitzu honetan, bazkideen rolak honako hauek izango dira:

Alde batetik, Asmaa Roufani idazkari lanetara zuzenduko da eta Eider Arrizabalagak koordinatzaile lanak egingo ditu. Beste aldetik, Eider Mendizabal hizlariak eta profesionalak ekartzearekin arduratuko da eta Nerea Martin diru kontuak bideratu eta kudeatuko ditu.

Honez gain, guztiok aholkularitza lanetan jardungo gara asteko egun guztietan. Izan ere, lau bazkideok daukagu gure ikasketak zein formakuntzak. Honako hauek dira gure ikasketak:

Asmaa Roufani: Gizarteratze eta pedagogia ikasketak.

Eider Arrizabalaga: Psikologiako eta psikomotrizistako ikasketak.

Eider Mendizabal: Medikuntza zein pediatria ikasketak.

Nerea Martin: Magisteritzako eta ekonomiako ikasketak.

Gure proiektua lehenik Lea Artibaiko Amankomunazgora aurkeztuko genuke. Ondoren, Amankomunazgoa osatzen duten Udalen oniritzia jasoz eta beraiekin Udalerako zerbitzu gisa azpikontratuak lortuz.

Proiektua aurrera joan ahala, beste funtsezko elkarte batzuk sortu beharko genituzke.

Psikologo, hizlari, pedagogo eta aholkulariak beharko ditugu gure proiektua aurrera joan ahala aldizkako kolaboratzaile bezala.

Ondoren bakoitzaren rolak zehaztuko ditugu:

Udaletxearen rola → Herriaren aurrean proiektua udalarena dela adieraztea izango da. Udal proiektu barruan, sinesmen handia baitago herritarren ongizatean.

Bestalde, proiektua aurrera eraman ahal izateko, udalak behar diren baliabideak jarriko ditu.

Lokala eta barruan behar diren azpiegiturak, esaterako.

Hizlari, aholkulariak→ Gure hizlariak edo aholkulariak gure zeharkako zerbitzuaren hornitzaileak izango dira. Alde batetik, informazioa emango dute soilik eta beste alde batetik, arazo baten aurrean, aholkularitza emango dute irtenbidea aurkitu eta laguntza emateko.

Hasiera batean ez dugu funtsezko elkarterik ez bazkiderik izango. Enpresa hazten joan einean, kanpoko hizlari zein aholkulariak ekarriko ditugu, beti ere gure aurrekontuari begira eta dirua aurrezteko ahaleginak eginez.